

Aitor Intxaurreaga

PILCOMAYO GOITIK BEHERA

IBARRETAREN OINATZEN ATZETIK

■ Hemendik abiatu zen Ibarreta Pilcomayo erreken zeharkaldia egitera

1898. urtean Pedro Enrike de Ibarreta bizkaitarrak bere aspaldiko proiektu bati aurre egin zion: Pilcomayo erreka esploratzea. Fama txarreko ibaia zen, basatia eta beldurgarria. Hainbat eta hainbat gizon desagertu edo hil egin zen ibai hau nabigatu nahian, baina honek ez zuen gure Ibarreta kikildu.

Ibarretak *chalana* edo ontzi gisako batzuk erabili zituen ibaiaren ibilbidea jarraitzeko eta gu, berriz, bizikletaz saiatuko gara ibaia ondo-ondotik jarraitzen. Ehun eta hamar urte beranduago bada ere, berari gertatu zitzaion antzera, ezin izango dugu ibaiaren ibilbidea osorik jarraitu, bat-batean desagertu egiten baita. Hala eta guztiz ere, 1500 kilometroko zeharkaldia egin genuen Pilcomayo ibaia jarraitu nahian.

Kultura zeharo desberdinak ezagutu genituen gure ibilbidean zehar: hogeita hamar etnia inguru lurralde oso desberdinetan sakabanatuta, Bolivia, Argentina eta Paraguai inguruetan. Etnia hauek ibaiarekin duten erlazioa ere, erabat desberdina da: Potosi ingurukoentzat erreka eta kutsadura batera doaz; Chuquisaca probintzian erreka ureztatzea esan nahi du; Tarija probintzian erreka eta arrantza bat datoz; Paraguai probintzietan abelazkuntza eta Formosa probintzian, ostera, erreka aintzira multzo bihurtzen da eta nekazal ekoizpenarekin eta parke nazional batekin lotzen dute bertakoek.

Ibarretak Colonia Creveaux deituriko toki batean ekin zion bere azken abentura izango zenari. Bolivian kokatzen da baina Argentina eta Paraguai mugetatik hurbil. Gu, ostera, bertara heldu orduko, Pilcomayo erreken sorburura hurbildu eta bertatik hasi ginen, 4000 metro baino gehiagoko altueran, pedalei emeki-emeki eragiten.

LOS bizkaitarrak Gaizka Aseginolaza y Aitor Intxaurreaga nos describen el recorrido de cerca de 1600 kilómetros que superaron sobre sus bicicletas en su reto de seguir el rastro del explorador vizcaíno Pedro Enrike de Ibarreta y Uhagon (1859-1898). La ruta trata de seguir, contra viento y marea, el curso del río Pilcomayo que, nacido en el altiplano boliviano, se encamina hacia el Atlántico atravesando todo el continente, para entregar sus aguas al río Paraguay en las inhóspitas comarcas del Chaco argentino. Cerca ya de esta meta, en el año 1898, Ibarreta fue asesinado por un indio pilagás. El modesto monumento que recuerda el lugar de su muerte es poco frecuentado en la actualidad, razón por la que la visita de unos exploradores vascos al lugar, resulta todo un acontecimiento en aquellos pueblos aún hoy olvidados y lejanos.



Aitor Intxaurreaga Arana (Zeanuri, 1966).

Mendi eta bizikletarako grinak eta zaletasunak (MTBko Espainiar Eskolako Mountain Bike-ko monitorea) mila abenturari ekitera eraman dute, beti era autonomoan eta gutxi ibilitako parajeetan zehar. Pirinio, Picos de Europa, Atlas eta Andeetan burutu ditu hainbat igoaldi (Vallunaraju 5685 m., Chachani 6075 m, Licancabur 5916 m...) bai eta zenbait trekking Himalaia, Alpe eta Andeetan zehar. Halaber, bizikletaz ibili ditu Maroko, Holanda, Frantzia, Peru, Txile, India, Bolivia, Argentina... bezalako herrialdeak.



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA



■ Aitor eta Gaizka Misión la Paz zubian, Pilcomayo errekan



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA

■ Hil zuten tokian monolito bat eraiki zuten



■ Ibarretaren omenez sortutako herria, Argentinako Formosa probintzian

■ Chacoko errepide politak.

ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA



■ Boliviako goi laudatan eman genituen lehen pedaladak

Challapata herria izan genuen abiapuntua. Oruro eta Potosi hiri nagusiak lotzen dituen errepide nagusia pasatzen da hemendik eta, beraz, lehen kilometroak asfalto gainetik egin genituen. Horrela, altuerara egokitu arte, erraz egin genituen lehen kilometro hauek. Altuera horretan egin genituen geure lehen egunak eta gogorra egiten da benetan hemengo haize hotza eta oxigeno faltarekin aurrera egitea. Aldapan gora geure bihotzen bularretik ihes egin nahia igartzen genuen eta kilometroak egin ahala gure indarrak ahitzen joaten ziren nabarmen. Bizikletetako zakutoek etxean arin-arinak ematen bazuten ere, han goian harriz beterik baleude bezala sentitzen genituen. Horrek eta geure eten gabeko buruko minak abiadura moteltzera behartu gintuen.

Kamioi bakar batzuek baizik ez gintuzten aurreratzen. Paraguaitarrak ziren gehienak eta oholez beterik zihoazen. Zeramatzen abiadura motela aprobetxatuz eta geure indar falta arintzeko, noizbehinka, beraien atzeari helduta gainditzen genituen aldapak. Baina, bestalde, inguruan izugarritzko paisaia basati, bakarti eta liluragarriak genituen, egoera larri haren lasaigarri.

Los Frailes izenez ezagutzen den mendikatean geunden. Ehundaka mendi daude errepidearen alde bietan eta beraien artean garaienak Malmisa (5453 m), Michaga (5300 m) eta Santa Juana (5100 m) ditugu.

Mendi hauetatik isurtzen den urarekin sortzen da Pilcomayo ibaia. Tolapalca eta Lagunillas herrien artean aurkitu genuen lehen errekatxo xumea, garai lehorrean baixeunden. Euriteen sasoiaren ordea, baliteke errekatxo hau kilometro batzuk lehenago sortzea, Vilcapujio herriaren inguruan, hain zuzen ere.

Goi lautada edo "altiplano" esaten diote lurralde honi. Bertatik bizikletan ibiltzea zer den bagenekien, beste bidaia batzuk ere eginda baikenituen hegoamerikatik. Baina lurralde hauetara hurbiltzen garen bakoitzean, gizaki txiki, xume eta hauskor bilakatzen gara. Lurralde hauen handiak, ikusgarriak

eta liluragarriak arrotz eta nimiño bilakatzen gaituzte ezinbestez.

Gainera, toki hauetan ez dago inongo azpiegiturarik. Dozenaka kilometro mendi artean, ehundaka llama bide ertzeetan, bofedal¹, lur lehorrak gatzaren ondorioz leku askotan zurutuak... Herriak, berriz, oso gutxi eta sakabanatuak. Baina ez pentsa gauza asko aurkituko duzuenik herri hauetan. Hemen bizitzea oso gogorra da eta eguneroko eginbeharra bizirik irautea bera da. Hemengo klimak eta lurrek ematen duten apurrarekin, nahikoa da helburu hau lortzea. Oinarritzko nekazaritza eta abeltzaintza bakarrik dira posible hemen. Beraz, ez espero bide ertzeko jatetxerik edo mini denda horietako bat duen gasolindegirik...

Bertako jende apalak ematen zizkigun janari eta edariari esker egin ahal izan genuen aurrera. Llama okela, patatak, arroza eta arraultzak, freskagarri batekin lagunduta, izan ziren eguneroko gure jateko bakarrik.

Yocalla herrira heldu arte Pilcomayo erreka urrunean ikusten genuen, mendi artetik hurbiltzeko bidea aurkitu nahian. Puente del

¹ Andeetako paramo edo punako istinga.

■ Autobus bat noiz pasako zain...



Diablo izenez ezagutzen da erreka gainditzen duen zubi zaharra. Bertakoak hemen kokatzen dute Pilcomayo erreka hasiera, berau baita hasierako ibilbidean erreka argi ikusten den lehen lekua.

Tarapaya-Miraflores herrian Potositik 20 km-tara gaude. Kolonizazio garaian aberatsak bizi ziren toki honetan. Izugarritzko etxaldeak –haziendak– eraiki zituzten garai haietan espainolek. Gaur egun gehienak bertan behera utzita daude. 3300 m-ko altueran dago kokatuta herria, Potosi baino 1000 m beherago alegia. Beraz, bizitzeko askoz ere klima eramangarriagoa du.

Zoritxarrez, bost mende geroago, bertatik pasatzen den Tarapaya erreka kutsadurak osasun arazo larriak eragiten ditu biztanleen artean. Mende hauetan zehar zilar, eztainu, zink, berun, artseniko eta antimonioa bezalako mineralak ateratzen ziren inguruetan eta meatze-industriak isurtzen dituen produktu toxikoak gaixotu egiten du bertako biztanleria. Erreka honek Pilcomayon isurtzen ditu bere urak eta ur hauek baratzeak ureztatzeko erabiltzen dituzte nekazariak eta erreka arrain kutsatuz elikatzen da jendea. Arrantzaleen artean, 350000 inguruk galdu dute beren bizibidea. Honek guztiak dakartzan arazo ekonomikoak direla medio, familia asko eta asko oso baldintza eskasetan bizitzera behartuak daude. Eta hau guztia gutxi balitz, biodibertsitatearen suntsiketa ere ekarri du kutsadurak, eta emaitzak hortxe ditugu, begi bistan.

Kontu honetan zerikusia duten hiru lurraldeek –Bolivia, Argentina eta Paraguai– hau konpontzeko bidean jarriko duen plana abiatu dute europar laguntzarekin. Honi esker, ibaiaren arroa berreskuratu nahi da eta garapen iraunkorra bultzatzen ari da zonaldean 2000. urteaz geroztik.

Azken urte hauetan Potosiko inguruetan dike haundi batzuk eraiki dira kutsadura hau kontrolatzeko eta, badirudi neurri handi batean lortu egin dutela. Hala ere, oraindik legezkoa den baino kutsadura handiagoa dute Tarapaya erreka urek.

Egun pare batez Pilcomayo errekaen arroa alde batera utzi eta Potosi eta Sucre hiriak bisitatu genituen. Tristea eta grisa lehena, zuria eta koloniala bigarrena.

Puente Mendez herrian egin genuen bat berriro Pilcomayorekin. Bertan dagoen erreka gaineko zubi koloniala izugarri polita da.

Chuquisaca probintzian barrena jarraitzen du Pilcomayok, Boliviako biztanleria apalenetako bat duen herrialdea. Inguru hauetako bideak ez doaz erreka ondotik. Beste aldera pasatzeko ahalgintetan erreka hurbiltzen direnean, Pilcomayoko uren indarrak, denak apurtzen ditu. Ur ilundun ibai hau batzuetan zakar, bihurri, gaizto eta hondatzaile bilakatzen da.

Sucreko bulego hidrikoan gomendatutako bidea jarraitzen erabakitzen dugu: erreka arroa gure ezkerrean utzi eta aurrera jarraitzeko Tarija probintziara doan errepidea hartzea. Jarraituko genuen bide hartatik pasatzen ziren, mendeetan zehar, Pilcomayo erreka lurralde esploratu gabeak ezagutu nahian zihoazena, Potosi eta Sucren dirua eta baimenak lortu ondoren. Horrek bultzatu gintuen, neurri batean, erabaki hura hartzera.

Ripiozko bideetatik gindoazen aurrera pixkanaka, beherantz abiatzen ginen heinean. Inguruko mendiak ozta-ozta heltzen dira jadanik 4000 metroetara.

Ordu luzeak eman genituen pedalei eragiten inor ikusi gabe. Hemengo lurraldeek basati eta bakartiak izaten jarraitzen dute. Noizbehinka lurrezko etxeko bat aurki daiteke bide bazterrean, landutako sororen bat, astoak eta eukaliptu sail batzuk, oro har, leku harritsu, lehor eta urria den eremu izugarri batean. Leku hauetan dituzten baliabideekin egunero esnatu eta aurrera egitea benetan gogorra izaten da. Pozik gaude hau ikusteko aukera daukagulako, oso abegitsu onartzen gaituzte eta benetan merezi duelako baina... Azken batean, aurrera egin ahala, etxera bidean goaz gu, bizitza "eroso" eta "hobe" baterantz...

Betanzos, Cachi, Puna, Padcoyo, Camargo, Villa Abecia, El Puente herriak zeharkatzen ditugu. Haietako batzuk besteak baino politagoak dira, baina denek eskaintzen dute zer ikusi eta ikasi. Itxuraz, bizitza hau latzagoa agertzen zaigun arren, ez al da gurea baino "aberatsagoa" izango?

Maldan behera asko egin dugu jadanik eta paisaia zeharo aldatu da. Mendiak kolore gorrikoak dira, Pilcomayo erreka ibaiadarretako bazterrak berdeak. Tenperaturak gora egin du eta askoz ere errazagoa da arnasa hartzea.



■ Jantoki batekin topo egitea ez da erraza Bolivian

Tarija probintzian gaude jadanik baina oraindik hiriburutik 110 kilometrotara. Bertara heltzeko Iscayachiko gaina igo, izen bereko herrira jaitsi eta berriro maldan gora Samako gaina gainditu behar da, hirira eramango gaituen maldan behera abiatu aurretik. 1800 metroko aldapa gorantz eta 2800 metrokoa beherantz.

Gorantz egin genituen maldak oso gogorrak egin zitzaizkigun, aldapez gain 4000 metrotatik gorako altueran baixeuden. Beheranzko aldapak, berriz, errazago egin genituen baina arreta handiaz, alde batetik errepide txarra eta haretsua delako eta, bestetik, bidearen ezkerrean zeuden amildegietatik.

Bizitza arrasto gutxi ikusiko ditugu leku zoragarri eta basati hauetan. Bizi izan zirenean aztarnak, osterak, ikusten dira bide bazterretan. Leku askotan ikusiko ditugu amildegietatik erori eta hildakoen oroimenez ipinitako egurrezko gurutzak. Ohikoak dira leku hauetan hildakoei buruzko oroitarriak. Samako gainetik jaitsi ginen aurreko egunean, hamalau pertsona suertatu ziren hilik autobus bat amildegitik behera joan zelako.

■ Apaintzeko tresna egokirik ez du emakume honek baina...



ARGAZKIA: ATOR INTXALURRAGA

la ordu eta erdi egingo dugu Samako gainetik behera. Geure bizikletari gogor eutsi eta atzamarrak mindurik heldu ginen Tarija hirira. Bertatik pasatzen den erreka izena ezaguna egiten zaigu: Guadalquivir.

Handik gutxira, pozez beterik heldu ginen Villamontes herrira. Azken bi egunetako etapak benetan politak izan ziren, inguratzen gintuen paisaia zoragarriagatik. Kolore gorriko ripiozko pistetatik ibili ginen, alde bietan

oihana geneukala: berde-berdea eta bertatik inoiz entzun gabeko soinuak, milaka txori, basurdeak bide bazterrean, behiren bat... basatia benetan.

Baina, dena dela, etapa bi hauek izan zuten beren tentsio apurra. Esan zigutenez, azken aldiak, bidetik zihoazena auto batzuk asaltatuak izan ziren. Gehienetan lapurretak bakarrik gertatzen baziren ere, noizbehinka bahiketarik eta hilketarik ere gertatzen ziren. Beraz, begiak zabal-zabalik eta gorputza tente eraman behar izan genuen.

Leku batzuetan Pilcomayo erreka urrutian ikusteko aukera geneukan baina bertara heltzea ezinezkoa egiten zitzaigun, artean oihan itxi bat baitzegoen.

Bolivian geunden oraindik. Herrialde honetan gutxitan izaten da arraina jateko aukera eta Pilcomayo errekaen ondoan geundela aprobetxatuz, bere arrain tipikoa den *sabaloa* dastatzeko aukera izan genuen. Pilcomayo erreka hemen ere kutsatuta dago eta bertako arrainak, diotenez, zilarrez beteta. Dena dela, horrek ez gintuen atzera bota bertako arrain hau probatzeko. Zailagoa izan zen *sabaloaren* milaka hezurtxoak alboratzen ibiltzea, mami pixka bat jan ahal izateko.

Esan bezala, Ibarreta, 1898ko ekainaren 26an Creveaux koloniatik atera zen Pilcomayo erreka esploratza. Eguerdia zen bertaratu ginenean. Bero handiaz, Creveaux esploratzailearen irudia aurkitu genuen herriko sarreran zain. Creveaux-ek ere Ibarreta baino hamabost urte lehenago ekin zion Pilcomayo erreka jarraitzeari eta berau ere hilik suertatu zen. Bertakoek badakite zerbait berari buruz baina Ibarretaz ez dute ezer ere entzun.

Gran Chaco lurraldeko herrietariko bat den *Weenhayek* indioen lurraldea da hau. Beraien betiko bizibideei eustien diete oraindik: arrantza, ehiza, ezta egin eta basoko fruituak batu, hain zuzen ere.

Hemen erreka hurbiltzeko aukera izan genuen. Arrantzale pare bat aurkitu genuen, beren artzai sareekin zer edo zer harrapatu nahian. Erreka zabaleria handia du hemen, baina ez dira ur sakonak, ezta gutxiago ere. Urak, orain arte bezala, marroi-marroiak dira, ordea.



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA

■ Oihan itxi bat Pilcomayo eta gure artean

Arazo batekin egiten dugu topo aurrera jarraitzeko. Boliviatik atera gintezke bertako zigiluarekin baina Argentina aldean ez dugu inor aurkitzen sarrerakoa ipintzeko. Honek ondorio larriak ekar ditzake eta, beraz, buelta eman eta Yacuibako mugatik pasatu ginen Argentinara.

Berriro errekarera hurbiltzeak zazpi orduko bidea suposatzen du, ripiozko pista zelaietatik pedalkadaka 125 km egiteko. Eta hau guztia 46° C-ko eguzki galdatan.

“Santa Victoria Este”n gaude. Ez da herri polita. Denda txikiren bat, okindegia, jantoki bat, moja komentu bat, udaletxe handi bat, kiroldegia... eta bertan, ehundaka pertsona. *Wichi* indioak dira, Gran Chacoko herrietako beste bat. Argentinako gobernuak “subsidio familiar” izeneko diru kopuru bat ematen die. Diru hau hilean behin ekartzen dute helikopteroz *wichien* artean banatzeko. Familiakide bakoitzeko diru kopuru bat ematen diete eta, horregatik, oso normala da beren artean 8-10 seme-alaba edukitzea. Dirua hain erraz irabazteak arazoak dakartza *wichientzat*: ez dute lan egin nahi eta ohiturak aldatzen ari dira. Janari eta edari berriekin batera gaisotasunak etorri dira eta bertan bizi diren kriolloak ez datoz bat gobernuaren politikarekin. Horrek tirabirak ekarri ditu hangoen artean. Kriolloek lan gogorra dute beren abereak aurrera ateratzeko eta *wichiak*, ostera, kobratu berri duten dirua gastatzeari ekiten diote.

Santa Victoria Este herria pare bat metroko hareazko eraztun batez inguratuta dago, Pilcomayo errekarako urak herrira hel ez daitezten. Baina badirudi, honek ez duela arriskua guztiz ezabatu eta inork ezer ez egitekotan, hemendik urte gutxira herria desagertu egingo da, gaurkoz Pilcomayo ibaia 12 km-tara dagoen arren.

48°C zeuden Mision la Paz herrira heldu ginenean. Argentinak eta Paraguai dituzten mugetariko bat da hau, teoriar, Paraguai aldean

ez baikenuen inor aurkitu sarrerako zigilua jartzeko. Nahiz eta nazioarteko zubia izan, Pilcomayoaren gainetik bertako *wichi* indioak baino besterik ez genuen ikusten. Beraz, errekararen beste aldetik jarraitu nahi izanez gero, legez kanpo ibili behar izango genukeenez, Argentinatik jarraitzea erabaki genuen.

Itsasoko mailara hurbiltzen ari ginen jadanik. 400 metrotara geunden bakarrik. Pilcomayo errekarako urak desagertzen joango dira hemendik aurrera, ibaia ekialderantz doan heinean: Boliviako altueretatik erreka honek izugarriko lur moltsoak ekartzen ditu beherantz. Inguru hauetara heltzean, maldak bukatu egiten dira ehundaka kilometroko lautada bihurtuz. Beraz, urtero-urtero Pilcomayoaren

uharka lurrez betetzen da eta, horren ondorioz, urak sakabanatu egiten dira ehundaka errekatxotan eta geroago aintzira bihurtuz. Ez dugu erreka berriz ikusiko 300 km aurrera egin arte.

Bat-batean bidean milaka tximeleta ditugu lagun. Eurria iragartzen omen dute. Zenbat eta tximeleta gehiago, orduan eta euri gehiago. Eta asko daude, benetan. Hortaz, kontutan izanik jadanik Pilcomayo laster desagertuko zaigula ondotik, aintzirak ezin izango ditugula bizikletaz gaingitu eta eurria egiten badu bideak lokatzez beteko direla, 81 zenbakiaz ezagutzen den bidera jaistea erabaki dugu, baina...

Izugarriko trumoi hotsak esnatzen gaitu kalean zintzilik ipini genuen eltxo sarearen azpian biluzik lo geundela. Bost minututan zer-nolako euritea hasi zen! Deskribatzea ez da gauza erraza. Lehertuta eta lokatzez blai bukatu genuen gau hura.

■ Argentinako mugatik hurbil gaude jadanik



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA

Barre egiten genuen hurrengo egunean handik irteten genbiltzala, bidean aurkitutako 4x4 batean El Chorro izeneko beste herri batera ailegatu ginenean. Ez zen erraza izan bertara heltzea. Gaueko euriak bideak urez gainezka utzi zituen eta, sarritan, pick-upeko zirgatik jaitsi eta bultzatu behar izaten genion ur putzuetatik ateratzeko. Guztira hiru ordu pasatxo eman genituen Gran Chacoko lur basatietatik 65 km egiteko. Eta eskerrak eman behar ditugu, ez ginelako bizikletekin handik sartu, bide gurutze ugari baitago inongo bide-seinalerik gabe, inor ere ez bidean, izugarriko beroa, noizbehinka azeriren bat, muskerren bat, iguanaren bat, *suriren* bat²... eta gainera bidea lokatzez gainezka.

El Chorrón beste ezusteko bat izan genuen. Ez dago lo egiteko lekurik eta poliziaren komisaldegira

² Ostrukaren moduko hegazti korrikalaria, *ñandu* ere deitua.

jo behar izan genuen azken orduan. Hango kalabozo bat eskaintzen ziguten baina, badaezpada ere, sarreran geure denda ipintzea erabaki genuen.

Hurrengo goizean 65 km egin ondoren, 81 bide asfaltatuak geunden. Azken egunetako abenturak gogoratuz beste 100 km egingo genituen egun hartan Ingeniero Juarezera heldu arte. Herri martxosoa berau: jende asko, tabernak, dendak, jantokiak... baina gu oso nekatuta geunden. Zortzi ordu eta erdi egin genituen pedalei jo eta ke, eguzkiaren beropean. Etxera deitu eta emazteak inbidia ematen digu: hotza dago eta euriak atertuta ere ez du egiten.

Bi egun beranduago Las Lomitas herritik irten ginen alokatutako kotxe baten laguntzaz, Ibarreta hil zuten lekua aurkitzeko asmo irmoaz. Bañado la Estrella, Pilcomayo erreko gainezkako urekin sortutako aintzira haundi eta errara zeharkatu genuen 28 bidetik lokatzetan tronpo batzuk eginez. Bat gentozen leku bisitagarri hau denborarekin turistiko bihurtuko dela, nahiz eta oraindik azpiegitura gutxi eduki. Hegoamerikako hirugarren hezegunerik handiena izanik, fauna eta floraz bete-betetako paraje berde eta hunkigarria da.

Cabo 1º Lugones herrira heldu eta ez genekien aurrera jotzeko zein bide hartu. Bertako udaletxera joan, nortzuk ginen eta zer nahi genuen azaldu eta, hara non lau behargin eta armadun polizia batekin abiatu ginen izugarriko traktore handi batean, Ibarretaren omenez 1986. urtean ipinitako monolitoaren bila. Gutariko inork ez zekien zehatz-mehatz norantz jo behar zen. Laguna Agria izenaz ezagutzen den aintzirarantz joan behar zela bai, baina beste informaziorik ez geneukan.

Hiru ordu egin behar izan genituen, aldika bidea garbituz motozerra edo aihotz batez, aurrera jarraitu ahal izateko, Yanacon jauna bizi den *paradaraino*³. Aurretik, beste *parada* bi utzi genituen atzean. Haietan, eta oihan tropikalez inguratuta, abereak zaindaz ateratzen dute bizimodua aurrera. Zoritxarrez, gu egon ginenean izugarriko lehorteak pairatzen ari ziren eta kolore

³ Chaco osoan zehar sakabanaturiko abeletxe txikiak, familiak bertan abereen, bereziki abelgorriaren, hazkuntzaz bizi direlarik. Klimak zehatz baldintzuriko lurralde honetan, lehorte izugarriek eta euriteen sasoiaren Pilcomayok dituen uraldi eskergak buruhauste gaitzak ekartzen dizkiete, bai abeltzain hauei eta bai bertako bereko herriei (*weenhayek, wichi, toba, guarani, pilaga...*).



ARGAZKIA: AITOR INTXALURRAGA

■ *Palavecino sendia*

berdeko putzuen inguruetan hildako behiak ikusten ziren. Zazpi hilabete zeramatzaten ur tanta bat ere ikusi barik.

Yanacon jauna da 1986. urtean Ibarretaren oroimenez monolitoa jartzen ibili zirenetariko bat. Ordutik ez da bertara bueltatu.

Palavecino neba-arrebak bizi diren Laguna Agria ondoko beste "parada" batera heldu ginen traktorean. Hemendik aurrera oinez jarraitu behar izan genuen



ARGAZKIA: AITOR INTXALURRAGA

■ *Edozein momentu da ona mate bat hartzeko*

sarritan aihotzaz bidea zabalduz. Hamaika lagun gindoazen jadanik. Benetako espedizioa zirudien: kolore berdeko putzuak zeharkatuz, ura bero-bero eta suge nahiz iguanekin estropozo egiteko arriskua ere, inguru hauetan hain ugaria den algarrobo zuhaitzaren arantzetatik geure burua zaindaz eta oinak bertako kaktus zorrotzetatik ihesean...

Ordubete geroago, izerdiz blai eta hautsez estalita, monolitoa agertu zitzaigun aurrez aurre. Une hunkigarria izan zen, abenturaren helburuetariko bat betetzea lortu baikenuen. Urteetan gorderik izan dudak ikurrin zahar bat, bereziki maite nuena, bertako zuhaitz batean zintzilik uztea erabaki nuen. Ibarreta hil zen urtean, 1898an, Pilcomayo hemendik pasatzen omen zen. Gaur egun

erreka 100 bat km-tara dago ekialderantz eta 300 km mendebalerantz (!!!). Orduan leku zingiratsua eta kanaberaz beterikoa zen hau eta Ibarretaren ontziak bertan geratu ziren lokatzetan aurrera jarraitu ezinik. Egarrria, gosea, beroa, eltxoak eta indioak izan ziren Ibarretaren lagunak bere azken egunetan, hauek hil zuten arte. Ez zen hilketa samurra izango, ez.

Hiru egun gehiago 81 bidetik eta Ibarreta izena duen herrira heldu ginen. Oso pozik hartu gintuzten bertakoek eta udaletxekoek bereziki. Historiarik gabeko herriak dira hauek oraindik. Ibarreta, adibidez, 1921. urtean eraiki zuten eta bizi laburra du herriak oraindik. Gu egiten gero biltzazana garrantzitsua zen beraiantzat eta herriko protagonista bihurtu ginen. Bertako irratian eta telebistan atera ginen geure abentura kontatuz. Gran Chacoko inguru hauetan, distantziak diren bezain handiak izanik eta jendea hain sakabanatuta egonda, irratik lokalak oso garrantzitsuak eta entzunak dira. Haien arteko mezuak ere irratiz bidaltzen dituzte eta norabait joan behar izanez gero garraio bidea bilatzeko irratia da erarik onena.

Colonia Creveaux herritik aurrera generamatzen 600 kilometroetan ez genuen aldatu txiki bat ere igo. Bat bera ere ez.

Ez dago erreferentziarik hartzeko leku garairik. Alde guztietan zelaiak. Beraietan baratzeak prestatzen dihardute nekazariak: artoa, kotoia, *zapalloa*⁴, patata, bananak...

Laguna Blanca herrira heldu ginen, azkenik, Pilcomayo Parke Nazionalera sarrerara. Berau 1951. urtean sortu zuten, 52000 hektareako azalera duen lautada izugarria. Bertan, aintzira,

palmondoz beteriko sabana, kanaberak, zuhaitz multzo batzuk eta oihana aurkitzen ditugu.

Arratsalde erdira arte itxaron genuen bizikletekin nondik norakoak azaldu ondoren, bagoak biok bakarrik pista batetik parkean barrena. Bueltan etorri orduko iluntzekotan, parkezaina bere 4x4an gure bila etortzekotan gelditu zen.

Iguana batek gure aurrean zeharkatzen du goazen ripiozko pista; aurrerago basurdeek begi txarrez begiratzen gaituzte; urrutian *suri* bi urrutzen dira korrika; bide bazterreko putzu handi batean *yacare* baten zalaparta entzuten dugu; ehundaka inurritegi eskerga ikusten dira sabanan eta milioika eltxok beltz bihurtzen dituzte gure

⁴ Kalabaza antzeko ortuarria.



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA

■ *Bañado de La Estrella* deituriko leku zoragarria

maillot gorriak. Bitartean, noski, haien haginkadak sufritzen goaz aurrera.

Pilcomayo errekarra heldu ginen. 1500 kilometro atzerago jaiotzen ikusi genuen errekek geldirik dirudi orain eta txikia da oso. Itsasontzien nabigazioa ezinezkoa da hemen. Gehienez ere, piragua batekin ibil liteke eta, sarritan, horrela ere ez. Argazki batzuk azkar atera eta bueltako bidean jarri ginenean hasi zen gure kalbarioa. Hamalau aldiz gurgila zulatu, bero izugarria, iluntzen hasia jadanik, hots arraroez inguratutik eta eltxoen haginkadak ezin jasanik. Urduri jartzen hasiak ginen, baina parke zaindaria gure bila etorriko zen itxaropena ez genuen galdu. Gaua sartua zen jadanik, ez genuen partxe gehiagorik, parkeko zaindaria ez zen agertzen eta gu han, oihanaren erdian, zer egin ez genekiela...

Suerte handia izan genuen finean. Azken hamar kilometroetan ez genuen gehiagotan pintxatu eta bizirik atera ginen handik. Hori bai, ordurako armiarmek beren sare handiekin gurutzatzen zuten bidea. Beraietan, ehundaka eltxo ikus zitezkeen ihes egin ezinik. Eta han gindoazen gu, azkar, handik lehenbailehen atera nahian, argirik gabe eta ahoa zabalik, sare haiek gu ere harrapatuko gintuzten beldur. Une larriak izan ziren haiek, izugarritzko sare haiek eraiki zituen armiarmaren tamainan pentsatuz. Puff!!!!!!!

Hurrengo egunean gorputza zitzadaz beteta geneukan. Pixka bat aurrerago Pilcomayo ikusteko aukera ematen zuen beste bide bat zegoen, baina aurreko eguneko pasatu ostean ez genuen abentura berririk nahi.

Pilcomayo ez genuen berriro ikusiko bere urak Paraguai errekan isurtzen dituen arte, 50 km aurrerago. Lauak izango ziren azken lur hauek ere, baina gauza bat desberdina behintzat bazuten: urrutian, baina gero eta hurbilago, Asuncion hiriko etxeorraz altuak genituen erreferentzia gisa.

Clorinda hirian geunden. Muga-hiri bezala, izugarritzko jendetza eta zalaparta nabari daiteke kaleetan. Pilcomayo erreka bertatik hegoaldera 9 km-tara hiltzen da, Puerto Pilcomayon. Izugarritzko ur zaparrada hasi zen bertaratu ginenean. Azkeneko hamabost egunetan jasandako beroa kentzeko zerutik etorritako euri goxoa.

Pilcomayo ibaiaren amaierako abenturako beste momentu hunkigarri honetara ere poliziaaren babesarekin heldu ginen. Ibaia jendez betetako txabola artean egiten ditu hil aurreko azken metroak.

Euriteen sasoia berehalaxe hasiko da eta orduan guk ikusi dugun Pilcomayo erreka lasaia gaiztotu eta bereak egingo omen ditu: uholdeak eta kalte izugarriak askorentzat, munduan ikusi dugun tokirik basatienetariko batean.

■ *Milaka hegazti bizi dire Bañado de la Estrellan*



ARGAZKIA: AITOR INTXAURRAGA

PEDRO Enrike Ibarreta Uhagon Bilbon jaio zen 1859ko abuztuaren 1ean. Familia aberatsekoa, militar izateko deliberoa hartu eta hemeretzi urterekin Guadalajarako Ingenieroen akademia militarrean sartu zen, ikasketa horiek burutzeko asmoz. Gazte-gaztetatik zuen Ibarretak izaera abenturazale nabarmena eta, ikaskide batekin izandako duelo bat dela eta, eten egin zen bere karrera militar hura, akademiatik bota baitzuten. Etxera itzulita, Bilbo-Durango burdinbidea eraikitzen lagundu zuen bere aita hurrengo urteetan. Bere barneko senak gidatuta, ordea, berehala abiatu zen erronka berrien bila Ameriketara, 1883an hain zuzen ere: Argentina, Colombia, Kuba, Bolivia, Paraguai... 1898an izan zuen, ordea, bere azkeneko abentura: Pilcomayo ibaiaren ibilbide osoa jarraitu eta lurralde ezezagun haiek zapaltzeko erronka. Boliviako goilautadan hasi eta Argentinako Chaco izeneko lurralde zingiratsuetaraino gauzatu zuen ametsa baina, Pilcomayoko urak Paraguai ibaian isuri baino kilometro apur batzuk lehenago, eskualde horretako indio pilagas batek edeki zion bizitza bilbotar esploratzaile ausartari. Gure historiako pertsonaia ezezaguna, agian maiteagoa eta oroituagoa da Ibarreta Chaco-ko herri ahazu urrunetan bere jatorrizko Euskal Herrian baino...

Bidaia ikaragarria, bizipenez bete, logistika aldetik zaila, fisikoki exigentea, batez ere altuera eta beroagatik, psikologikoki gogorra informazio eta infrastruktura faltagatik baina, batik bat, gomendagarria gure iraganeko abenturazaleen espiritua mantentzen duenarentzat.

Mende bat baino gehiago pasatuta, Gran Chacok badu osagai nahikoa gure abenturazaletasuna guztiz asetzeko. □

ETAPAK ETA KILOMETROAK:

1-	Challapata - Ventilla	95 km	
2-	Ventilla - Yocalla	75 km	(+ 20 pick-up batean)
3-	Betanzos - Puna	45 km	
4-	Puna - Padcoyo	96 km	(+ 40 kamioi batean: Camargo)
5-	Camargo - El Puente	76 km	
6-	El Puente - Tarija	115 km	
7-	Tarija - Entre Ríos	95 km	
8-	Entre Ríos - Palos Blancos	80 km	
	<i>Palos Blancos - Villamontes</i>	60 km	(kamioi batean, arriskutsua)
9-	Villamontes - Yacuiba	100 km	
10-	Yacuiba - Santa Victoria	125 km	
11-	Santa Victoria - M. La Paz	20 km	
	<i>Santa Victoria - El Chorro (General Mosconi)</i>	65 km	(pick-up batean)
12-	El Chorro - Ingeniero Juárez	160 km	
13-	Ing. Juárez - Laguna Yema	95 km	
	<i>Laguna Yema - Las Lomitas</i>	80 km	(kamioneta batean)
14-	Las Lomitas - Ibarreta	86 km	
15-	Ibarreta - Villa General Güemes	80 km	
16-	Villa General Güemes - Espinillo	100 km	
17-	Espinillo - Laguna Blanca	60 km	
18-	Laguna Blanca - Clorinda	85 km	

Guztira 1588 km bizikletaz, pedaleoko 18 etapatan. Eguneko batez beste 88 km, pedaleoko 5 eta 6 ordu bitartean. Bidaia osoaren iraupena 26 eguneko izan zen.

Aitor Intxaurreagak eta Gaizka Aseginolazak 2008ko urriaren 11 eta azaroaren 6a bitartean egindako ibilbidea.

Ibilbidearen perfila 4000 m-tatik beherako jaitsiera etengabe batez irudika liteke (lehenengo bi egunetan 4100 m-ak gaingitu genituen zenbait tartetan), harik eta Clorinda ondoan Pilcomayo isurtzen den arte, itsas-mailatik 51 m-tara dagoen tokiraino alegia. Hasierako 800 km-etan (Bolivia), Villamontes izeneko herria erdiesten dugun 500 m-taraino jaitsiko gara (etengabe gora eta behera ibiliz). Handik Clorindara (beste 800 kilometro), 450 metro eskas jaitsiko ditugu, ezta aldapa txikiarik ere aurkituko ez dugun amaierarik gabeko lautada batean behera.



ARGAZKIA: AITOR INTXAURREAGA

■ Errepide onak eta leku lasaiak Tarijako probintzian



■ Pilcomayo erreka hiltzen den lekua, Clorindatik hurbil

Informazioa:

www.pilcomayo.net
www.nativabolivia.org
www.turismo.gov.ar
www.igmbolivia.com

Bai Argentinako eta bai Boliviako turismo bulegoak zein enbaxadak, herrialdeari buruzko informazioa dohan igortzen dute postaz etxera.

Bidaiari ekin baino aste batzuk lehenago nazioarteko osasun zerbitzuetan galdetu, honako txerto hauek komenigarriak izan daitezkeelako (2008ko urria): tetanos, sukar horia, malaria edo paludismoa.

Kasu denge izurriari Paraguaiko lurralde mugakideetan. Irakindako jakiak hartu, ongi egindako haragia eta edan bakarrak botilatutako ura.

Eurite sasoiaren ibaien uholdeengatik eta sortzen diren basatza izugarriengatik bidean trabatuta geratzeko arriskua dago.

Fauna basatia dela eta, zenbait tokitan akanpatzea arriskutsua izan daiteke: pumak, yacareak, sugeak...

Ibilbidearen toki batean ere ez dugu arrisku sentsaziorik izan. Palos Blancos eta Villamonte bitartean zenbait aste lehenago kamiollari batzuei eginiko lapurretak direla eta, apur bat ikararuta ibili ginen.